

KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

146 positibo berri
7.795 positibo guztira*
hildako EAEn
UCIn EAEn

NAFARROAN

261 positibo berri
11.402 positibo guztira
hildako
UCIn Nafarroan

*HERNANIN 223 (+11), ASTIGARRAGAN 48 (+2)

«Kultura erdigunean jarri, eta diziplina artistiko asko uztartuko ditu Erribera kulturgunek»

Asteburu honetan inauguratuko dute Astigarragako kultur etxe berria, zaharrari agur esanda. Emanaldi ugari izango dira, eta ibilbide artistikoak kulturgunean barrena.

ASTIGARRAGA KULTURA

Egun seinalatuak merezi lukeen jendetzarik gabe, baina oso modu berezian egingo dute kultur etxe zaharretik berrirako bidea, asteburu honetan, astigartarrek. Larunbatean inauguratuko dute Erribera kulturgunea, Kontxaenean eraikin zaharrari agur esan ondoren, eta zapata aldaketa baten modura irudikatuko dute, sinbolikoki. Izan ere, *Zapata berriak* egitasmoarekin emango diote ongietorria Erriberari, Astigarragako Udalak eta Hika Teatroak antolatuta.

«Nahi izan dugu ez izatea ekitaldi soil bat, baizik eta partehartzea sustatuko zuen zer-bait, eta saretze bat ekarriko duena. Zapata berriekin, sinbolo bezala, irudikatuko dugu eraberritzea ekarriko duela kulturgun berriak. Horrelako kulturgun haundi bat oso garrantzitsua da, diziplina artistiko asko uztartuko dituelako, eta herriko artistek elkar ezagutzen lagunduko duelako, artista asko baitauzkagu herrian», azaldu zuen Aintzane Barandiaran kultura zinegotziak atzo, asteburuko ekitaldiaren aurkezpenean. Modu berezian eman zioten hasiera aurkezpenari ere: Benito Lertxundiren *Erribera* abestiaren doinuak eskaini zituen Inma Aramburu musikariak, biolinarekin.

Abesti horixe hartu dute kulturgunearen ereserkia gisa, baina Agin Laburu bertsolariak letrari egindako moldaketekin, eta

inaugurazio ekitaldian bertan kantatuko dute, herriko abesbatza eta kantariek, beste hainbat emanaldiren artean. Herriko bederatzi kultur elkarte eta 20 artistak hartuko dute parte, inaugurazio ekitaldian.

Zapata zaharrak, kultur etxe zaharrari agur esateko

Kontxaenean, kultur etxe zahar-rean, hasiko da larunbateko inaugurazio ekitaldia. Goizeko 09:30etatik 11:30etara, eraikin zaharrera azken bisita egiteko aukera izango dute herritarrek. «Kulturgun berriari kaixo esateko ez ezik, zaharrari agur esateko ere bada ekitaldia. Eskatu nahi diegu herritarrei, zapata zaharrekin joan daitezela bertara, eta poltsa batean zapata berriak eraman ditzatela. Horrela, zapata zaharrak kultur etxe zahar-rean utzi ahal izango dituzte, nahi duten tokian, eta zapata berriekin atera handik, kulturgun berriera joateko», azaldu zuen Agurtzane Intxaurreag, Hika Teatroko zuzendariak.

Azken bisita horien ondoren, *Agur jaunak eta andreak* abestuz emango diote azken agurra, eguerdian, Kontxaenean.

Eta ondoren, 12:30etan, Erriberako ataria izango da elkar-gunea. Herriko makina bat musikari, dantzari, bertsolari eta abeslariaren eskutik, eta herritarren partehartzearekin, ongietorri beroa emango diote.

Ibilbide artistikoek borobilduko dute eguna, horrela erakutsiko baitizkiete kulturgunaren espazioak, 180 herritarri: 90 eguerdian, eta beste 90 arratsaldean. Horiek, zozketa bidez aukeratuko dituzte, postalak entregatu dituztenen artean. Postalekin, gainera, instalazio bat egin dute, hilabetez ikusgai egongo dena.

Dokumentalaren estreinaldia, larunbat arratsaldean

Eta arratsaldeko ibilbide artistikoaren ondoren, estreinatuko



Kultur eragileak, Hika Teatroko kideak eta Astigarragako Udaleko ordezkariak, atzo, inaugurazio ekitaldiaren aurkezpenean.

dute dokumentala, 40 astigartarren iritzia biltzen duena, Astigarragaren eta kulturaren arteko harremanaz. Intxaurreagak berak zuzendu du, Unai Alberdi astigartarrak egin du errealizazioa, Alaine Agirre idazleak osatu ditu testuak, eta Iñaki Dieguezek jarri dio musika.

Igandean jarriko dute dokumentala berriro, bi txandatan, eta horietarako sarrerak eskuratu beharko dira, *astigarraga.eus* webgunean edo udaletxean.

Nobedade gehiago ere izango dira. Esaterako, Pau Figueres artistak artelan bihurtu du kulturguneko horma bat, eta larunbatean bertan bukatuko du.

«Aurrera begira, kultura erdigunean jarri, eta publiko berriak sortzeko balioko du ekitaldiak», adierazi zuen Intxaurreag.

Eta ekitaldira gerturatzeko gonbitea luzatu zien Xabier Urdangarin alkateak, herritarrei: «denbora luzean ez ahazteko modukoa izango da. Beraz, etorri zapata berriak jantzita, kulturgun berriari urratzeko; horretarako da eraikin haundi hau». **K**

IRAILAK 12, larunbata

Kontxaenean

09:30-11:30, Kultur etxe zaharrari azken bisita egiteko aukera. Bisitan zapata zaharrak erantzi eta berriak jantziko dituzte. Zaharrak bertan utziko dituzte, Kontxaenea izan denaren lekuko.

12:00, Azken agurra: Amaia Fernandez kantari eta Iñaki Dieguez eskusoinuarekin; Tessa Antonegik testu irakurketa (Eli Laburuk idatzitakoa), eta Saioa Zuaznabarrek musika; Joseba Astarbe dantzariak agurra; Eragiyok eta Aiztondo abesbatzek *Agur jaunak eta andreak*, musikaren laguntzaz.

Erribera kulturgunean

12:30, Emanaldiak, atarian: Zozongo batukada eta Kita del Pare txaranga; Agin Laburu bertsolaria; Aurkia Ahizpak; Astigar Dantza Taldea eta Txirriskla Txistulari Taldea; Tessa Andonegi eta Inma Aramburu; Zozongo batukada eta Dynamic Dantza Akademia;

Deblauki musika taldea; Xuira taldearen dantza akrobatikoa, Iñaki Dieguez eta Iker Telleriaren musikarekin; Klara Mendizabal sopranoa eta Joana Otxoa de Alaiza teklatuan; alkatearen eta kultur taldeen hitzak; Aiztondo eta Eragiyok abesbatzek *Erribera*, herri osoarekin; eta irrintzi zaparrada.

13:30 eta 18:00, Ibilbide artistikoak, kulturgunea ezagutzeko.

19:00, Dokumentalaren estreinaldia, arratsaldeko ibilbide artistikoan parte hartu dutenentzat.

IRAILAK 13, igandea

Erribera kulturgunean

10:00, 11:00 eta 12:00, Bisita gidatuak, 10 laguneko taldeetan. Sarrera eskuratu behar da, udaletxean edo astigarraga.eus web orrian.

17:00 eta 18:30, Dokumentalaren emanaldia. Sarrerak eskuragarri daude astigarraga.eus web orrian, edo udaletxean.

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Ezlaigo poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

JOXE MARI
EDARITEGIA

FIDELTASUN TXARTELA

Astelehenetik ostiralera 10 kafe hartuta, 11garrena doan daukazu. Gainera, zure bonoa betetzean, zozketan parte hartuko duzu:

ASTEBURU BAT DEBAKO AISIA SPAN

Kale Nagusia, 7
943 55 00 32

AKELENEA
Erretegia - XIX Mendeko Sagardotegian

Koldo eta Ana

Astelehenetik ostiralera eguerdian irekita, larunbatetan eguerdi eta gauean.

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333

EGURALDIA
GAUR Aldaketa gutxi izango dira goizean, eta eguzkitsu egongo da, udako giroarekin. Arratsaldean, berriz, iparraldeko haizea sartuko da, eta lainoak ugartuko dira zenbait tokitan. Baliteke euri pixka bat egitea ere. **Min.13° / Max.23°**

BIHAR Behe-laino batzuk agertuko dira bihar, eta zerua lainotuta egongo da tarteka. Tenperaturak koxka bat egingo du behera, baina giro atsegina izango dugu. Iparraldeko haizea indartu egingo da arratsaldean. **Min.14° / Max.24°**

ARGITARATZAILA
DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA

LAGUNTZILEAK

Hernaniko Udala

Astigarragako Udala

Ereñotzuko Auzo Urtia

GOZUETAKO UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTZAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

HERNANI

GOZUETAKO FORU ALDUNDIA

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Kromiki Lehiaketa martxan, adin guztietako sortzaileentzat

Doberak antolatu du, haur, gazte eta helduen artean «euskal kultura, sorkuntza eta irakurzaletasuna sustatzeko asmoz».

HERNANI DOBERA

Lehiaketa berezia jarri du martxan Dobera Euskara Elkartek, «haur, gazte eta helduen artean euskal kultura, sorkuntza eta irakurzaletasuna sustatzeko asmoz». Kromiki Lehiaketa antolatu du, adin guztietako sortzaileei zuzenduta. Izan ere, hiru kategoria izango dira: haurrak (6-11 urte), gazteak (12-17 urte), eta helduak (18 urtetik gora).

Hernanirekin zerikusia duten komikiak izango dira, eta testuek euskeraz idatzita behar dute. Tamaina, Kronikan argitaratzen diren Kromikien berbera izango dute: 26 zentimetroko zabalera, eta 7,3 zentimetroko altuera. Txuri-beltzean zein koloretan egin daitezke.

Lanak aurkezteko epea, urriaren 16ra arte

Aurkeztutako lanek originalak izan behar dute, beste inon aurkeztu gabekoak; eta Kromikiak ezin du egilearen izenik izan agerian. Partehartzaile bakoitzak, Kromiki bakarria aurkeztu ahal izango du. Urriaren 16ra arte izango da lanak entregatzeko epea, eta euskarri fisikoan zein digitalki aurkeztu daitezke; bietan, plika-sistema erabiliko da, lehiaketaren gardentasuna bermatzeko.



Kronikan argitaratzen diren Kromikien tamainakoak izan beharko dute lanek.

Euskarri fisikoan entregatzeko, Doberaren bulegora (Larramendi kalea 11, behe) eraman behar da: Kromikia gutunazal haundi batean sartu behar da, kanpoan izengoitia jarrita; eta gutunazal txikiago batean sartu beharko da plika, egilearen izen-abizenak, adina, kategoria eta harremanetarako datuak zehaztuta. Bulegora azaldu aurretik, komeni da elkartera deitzea, hitzordua zehazteko.

Modu digitalean aurkezteko, aldiz, PDF formatuan bidaliko da Kromikia, dobera@dobera.eus helbide elektronikora. Aurreko sistema bera bermatzeko, bi dokumentu bidali beharko ditu partehartzaile bakoitzak: batean Kromikia bera egongo da, eta bestean plika, datu pertsonalekin. Aurreneko dokumentuari, izengoitia jarri beharko zaio izenburu gisa; eta bigarrenari, berriz, *(Izengoitia)ren plika*.

Hiru Kromikilari, epaimahaikideak

Lan guztiak jasota, epaimahaiak baloratuko ditu. Kronikako hiru

Kromikilarik osatuko dute epaimahaia, hain justu: Ana Almandozek, Alai Zubimendik, eta Ainara Azpiazu Axpik.

Hirurek elkartuta ebaluatuko dituzte lanak, eta azaroaren 2a baino lehen emango dute epaia. Sare sozialen eta dobera.eus web orriaren bitartez zabalduko ditu irabazleen izenak, Doberak.

Sari hirukoitza, kategoria bakoitzeko irabazleak

Kategoria bakoitzean, sari hirukoitza jasoko du irabazleak: komiki sorta bat, bere Kromikia Kronikan argitaratzea, eta ilustratzaile-epaileen ilustrazio pertsonalizatua. Haurren kategoriako irabazleari Ana Almandozek egingo dio, gazteen kategoriakoari Alai Zubimendik, eta helduetan irabazten duenari Ainara Azpiazu Axpik.

Gainera, lehiaketara aurkeztutako Kromiki guztiekin, liburuxka bat osatuko du Doberak, eta PDF formatuan helaraziko die partehartzaile guztiei. Doberaren webgunean ere jarriko da, deskargatzeko moduan. **K**

Eva Esnaola nagusi, hiru orduko proban

HERNANI ATLETISMOA

Abuztuaren 29an bueltatu zen lehiara Eva Esnaola herna-niarrar, Frantziako Villenave d'Ornon herrian, 24 heures de Bonheur lasterketan. Hiru orduko modalitatean hartu zuen parte berak, distantzia gehien zeinek osatuko; eta hirugarren sailkatu zen Esnaola, 36,025 kilometro eginda. 43,942 kilometro osatu zituen Pierre-Antoine Ruel irabazleak, eta aurreneko emakumea izan zen Esnaola. Hortaz, modurik onenean ekin die lasterketei, hilabetetan dortsalik jantzi gabe egon ondoren.



Eva Esnaola, 24 heures de Bonheur lasterketan. Argazkia: '24h Villenave.fr'

Solasaldien aurkezpen saioa, gaur

HERNANI LITERATURA

Literatur solasaldien ikasturteari hasiera emateko, aurkezpen saioa egingo dute gaur, 19:30etan Biterin, Amaia Garciak gidatuta. Gaztelaniaz izango da, eta bi liburu izango dituzte hizpide: *Leonora*, Elena Poniatowskarena; eta *Muerte en Venecia*, Thomas Mannena.

Vademekun kale ikuskizuna, atzeratuta

EREÑOTZU OLAK AUZO ELKARTEA

Bihar eskaintzekoak ziren, Ereñotzuko frontoian, Vademekun kale ikuskizuna; baina atzeratu egin dute, artistetako batek Koronabirus kasu bat gertu izan duelako. Jakinaraziko dute data berria.

Epea luzatuta, Biteriko ikastaroetarako

HERNANI KULTURA

Astebetez luzatu dute epea, Biteriko ikastaroetan izena emateko. Beraz, irailaren 14ra arte izango da aukera, apuntatzeko. Auzoetako tailerretan, oraindik ez dute izenematea zabaldu. Laster zabalduko dute, tailer horiei buruzko informazioa.

Bilera gaur, arraun denboraldia hasteko

HERNANI ARRAUNA

Gaur hasiko du denboraldi berria, Hernaniko Arraun Elkartek, haur eta kadete mailetan; eta horretarako, bilera batera deitu dituzte, 19:30etan elkartearen lokalean, Ibarluzen. 11 urtetik gorako neska-mutilei luzatu diete deia, arraunean egitera animatzeko.

Zirkuluaren bilera bihar, Ahal Duguk

HERNANI PODEMOS-AHAL DUGU

Bilera baterako deia egin du Hernaniko Podemos-Ahal Dugu zirkuluak, bihar arratsalderako. 19:30etan izango da, bere egoitzan (Elkano kalea 1), eta zenbait gai landuko dituzte: eraso sexistei buruzko mozioa, Euskaraldia, mugimendu sozialak...

Ezohiko bilera, Tokiko Gobernuak

ASTIGARRAGA UDALA

Ezohiko bilera egingo du gaur, 14:30etan udaletxean, Astigarragako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak. 12 gai dauzkate lantzeko; besteak beste, honakoak: bi udal lokalen trukaketa, kultur etxeko ikastaroak emateko zerbitzu-kontratua, Santiomendi auzoa ber-rurbanizatzeko obra-kontratuaren esleipena...

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



MARIA ROSA BERISTAIN ITURRALDE

(Joxe Mari Azaldegi 'Auxua'ren alarguna)
Atzo hil zen, 84 urte zituela

Seme-alabak: Juanjo eta Ladi Olaizola, Karlos eta Maixa Makatzaga; bilobak: Garazi eta Iñigo, Naroa, Xabi; birloba: Aetz; anai-arrebak: Lorentxa eta Manuel (†), Pakita eta Joxe Mari (†), Juanito, Joxepa eta Nikasio, Maritxu eta Pedro (†), Joxe Mari eta Juani, Peio eta Mila, Miren eta Xanti, Arantxa eta Joxe, Joxemiel eta Koro, Jone eta Patxi, Joxe Luis eta Arantxa; ezkon ahizpa: Bakartxo; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, ASTEAZKENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko irailaren 9an

OHARRA: Gorputza Hernaniko ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 12:00ak arte.

IRAGARKI MERKEAK

Emakume euskalduna behar dugu adineko pertsona bat zaintzeko, esperientziaduna.

Soziosanitarioa edo tituluduna izan behar du. **Deitu: 650 015 489**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**